

## DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2023

### GOGORA

1. Memoria historikoa elkarteak eta fundazioak 2023..... 2
2. Udalerriek edo tokiko gainerako entitateek memoria demokratikoa berreskuratzeko dirulaguntzak ..... 4
3. Dokumentalak egiteko eta liburuak argitaratzeko dirulaguntzak 2023..... 6



#### 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Memoria historikoa elkarteak eta fundazioak 2023**

#### 2.- Araua

Ebazpena, 2023ko maiatzaren 10ekoa, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen zuzendariarena, zeinaren bidez egiten baita Euskal Autonomia Erkidegoko elkarteak edo fundazioek memoria historikoa berreskuratzeko proiektuak egiteko dirulaguntza-deialdia 2023. urterako.

#### 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2023/05/2302326e.pdf>

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2023/10/2304791e.pdf>

#### 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza-deialdia 112.500,00 eurokoa da, eta Euskal Autonomia Erkidegoan 1936-1977 aldian memoria historikoa eta demokraziaren eta askatasunaren aldeko borroka berreskuratzeko, ikertzeko eta zabaltzeko proiektuak diruz laguntzeko da.

Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarten eta Fundazioen Erregistroan inskribatuta dauden eta estatutuetan memoria historikoa berreskuratzea helburu duten elkarte eta fundazioek jaso ditzakete laguntzak.

Zehazki, laguntzak honako hauek sustatzera bideratu dira:

- Gerra zibilaren eta diktaduraren errepresioarekin, erbesteratzearekin eta balio demokratikoen errealtatearekin eta egoerarekin lotutako gertaerak eta prozesuak berreraikitze ikerketa-jarduerak.
- Errepresioarekin, erresistentziarekin eta gizarte demokratikoaren eraikuntzarekin zerikusia duten pertsonak eta gertaerak oroitze edo omentzeko jarduerak.
- Elkarteak eta/edo fundazioek antolatzen dituzten zabalkunde-jarduerak: jardunaldiak, mintegiak,aldi baterako erakusketak, liburuxkak...



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

24 proiektu aurkeztu dira, baina batek birritan aurkeztu du eskabidea.

4 proiektu baztertu dira.

20 proiektu lagundu dira diruz: oroitzapenezko edo omenezko 2 jarduera, 5 ikerketa eta hedapeneko 13 jarduera. Une honetan ez da justifikazioen tramitazioa amaitu, eta, beraz, ezin dugu proiektuen eragina behar bezala baloratu.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Diruz lagundutako proiektuak	20	20



#### 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Udalerriek edo tokiko gainerako entitateek memoria demokratikoa berreskuratzeko dirulaguntzak**

#### 2.- Araua

EBAZPENA, 2023ko urriaren 16koa, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren zuzendariarena, zeinaren bidez 2023. urterako dirulaguntzen deialdia egiten baita Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriek edo tokiko gainerako entitateek memoria demokratikoa berreskuratzeko proiektuak egiteko.

#### 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2023/10/2304842e.pdf>

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2024/01/2400260e.pdf>

#### 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Xedea da 2023. urterako laguntzen deialdia egitea, norgehiagoka-araubidean. Laguntzok bideratuko dira EAEn Gerra Zibiletik gaur egunera arte gertatukoaren memoria berreskuratzeko eta demokraziaren eta askatasunaren aldeko borrokaren tokiko ikerketa sustatzeko proiektuetara. Era berean, sinbologia frankista kentzera bideratutako proiektuak eta hedapen-jarduketak egiteko.

#### 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

21 proiektu aurkeztu dira.

6 proiektu kanpo utzi dira: 1 gainfinantzaketan erortzeagatik, horietako 2 diruz laguntzeko moduko jarduerak ez izateagatik (deialdiaren 3. artikulua) eta beste 3 eskatutakoa behar bezala ez zuzentzeagatik.

15 proiektu lagunduko dira diruz: 3 ikerketa, 10 zabalkunde-jarduera, 2 oroitzapen- edo omenaldi-jardunaldi.

Guztira, 33.806,94 euroko dirulaguntza emango da, aurrekontuan ezarritako zenbatekoa (137.500,00 euro) baino askoz txikiagoa. Ezberdintasun hori gertatu zen memoriaren ibilbideak norgehiagoka bidez ez diruz laguntzea erabaki zelako, nahiz eta aurreko urteetan gehien diruz lagundutako jarduerak eta garestienak izan. Oraindik ezin ditugu zehatz-mehatz kuantifikatu lortutako emaitzak, justifikazioen tramitazioa ez dugulako amaitu, baina udal guztiek justifikazio hori aurkeztu dute data horretan. Hala ere, balioetsi dezakegu dirulaguntzaren zenbatekoa handiegia dela.



## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Diruz lagundutako proiektuak	30	15



#### 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Dokumentalak egiteko eta liburuak argitaratzeko dirulaguntzak 2023**

#### 2.- Araua

EBAZPENA, 2023ko maiatzaren 3koa, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren zuzendariarena, memoria demokratikoa berreskuratzeko liburuak argitaratzeko eta dokumentalak egiteko dirulaguntzen deialdia egiten duena 2023. Urterako

#### 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2023/05/2302187e.pdf>

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2023/09/2304449e.pdf>

#### 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Ebazpen honen xedea da Gerra Zibiletik gaur egunera arte Euskadiren memoria demokratikoa berreskuratzea helburu duten ez-fikziozko liburu argitaragabeak argitaratzeko eta zinemarako, telebistarako eta/edo multimedia-plataformetarako dokumentalak egiteko dirulaguntzetarako 2023rako deialdia egitea, memoriari buruzko dokumentu- eta ikus-entzunezko funts bat sustatzeko. Lanek 2023ko abenduaren 31n amaituta egon beharko dute, eta haien gaiak memoria historikoaren eta oraintsuko memoriaren egia berreskuratzearekin eta argitzearekin lotuta egongo dira, demokraziaren, giza eskubideen defentsaren eta urraketaren salaketaren ikuspegitik. Deialdi honek 80.000 euroko zuzkidura du eta proiektu bakoitzak 15.000 euroko gehienezko laguntza izango du ikus-entzunezkoen kasuan eta 5.000 eurokoa liburuen kasuan.

#### 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatze eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Se han presentado 13 proyectos, 7 libros, 5 documentales y un documental sonoro. 2 de dichos proyectos no han presentado la documentación subsanatorio solicitada, de modo que se les da por desistidos. Se ha excluido 1 proyecto, porque el proyecto no se encuentra entre las actuaciones a subvencionar al tratarse de un documental de audio.

Se han subvencionado 10 proyectos, 6 libros y 4 documentales. Por lo que tan se han ejecutado 66.134,00 euros de los 80.000 euros que se habían presupuestado.

En cuanto al posible impacto social, se valoraron especialmente los proyectos sobre temáticas más novedosas o menos tratadas hasta el momento, así como la tirada de libros que se pretende publicar o los auditorios donde se proyectaran los documentales y posibles festivales.



## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Diruz lagundutako proiektuak	10	10